

**MAHAI SEKTORIALA: NEGOZIAZIOEN JARRAIPENA (2)****OPOSAKETAK: ALDAKETAK 2006ko Deialdian**

Otsailaren 9ko Mahai Sektorialean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Administrazioak 2006an Araubide Bereziko Irakaskuntzetan Lanpostu Eskaintza Publikoko (OPE) deialdia egiteko oinarrien inguruan argibide batzuk eman ditu.

HEOko eskaintzan aldaketa batzuk eman dira, hona hemen geratuko dena:

Hizkuntza Eskoletako Irakasleak	LIBRE		HORIZONTALA		ELBARRIAK		GUZTIRA
	2. HE	1. HE	2. HE	1. HE	2. HE	1. HE	
Alemanera	1	1	-	1	-	-	3
Euskara	4	-	4	-	1	-	9
Ingelesa	2	2	1	2	-	-	7
Italiera	1	1	-	1	-	-	3
GUZTIRA	8	4	5	4	1	-	22

Besteetan (Kontserbatorioak eta Arte Eskolak) ez dago aldaketarik (Ikus 6. Digitala, urtarrilaren 20koa) Deialdiaren beste ezaugarriak otsailaren 23ko bileran zehaztuko dira.

DEIALDIAREN LANPOSTUEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK DIRELA ETA ...

... Irakaskuntza publikoa euskalduntzearen aldeko benetako urratsak ematea ezinbestekoa da. Ezinezkoa baita kalitatezko irakaskuntza euskalduna eskaintzea ikastetxeetako Lanpostu Zerrendak erdal lanpostuekin zipriztinduta azaltzen bazaizkigu. Horregatik LABek eskainiko diren lanpostu guztiak HE2koak izatea exijitu du, gaur egungo egoerari aurre egiteko eta euskalduntzean benetan eragiteko modu bakarra horixe baita.

Argi azaldu nahi dugu, Tontxu Camposek gidatzen duen Hezkuntza Administrazioak eta gainontzeko sindikatu guztiek muzin egin diotela euskalduntzearen aldeko eskaera honi eta ondorioz eskainiko diren 37 lanpostuetatik 17 HE1ekoak direla.

Egoera honi aurre ez egiteaz gain, Administrazio honek atzera pausoak ematen ditu euskalduntze politikaren atalean behin eta berriro. Honen adierazle garbia, inongo Hizkuntza eskakizunik egiaztatu gabekoek ere izango dutela parte hartzeko aukera LEP honetan. Berriro ere, ikastetxeetako plantilak erdaldunekin egonkortzera badoaz, zenbat urte gehiago beharko ditugu irakaskuntza publikoko irakasleria euskalduna izan dadin? Tamalez, jakina da azken 25 urtetako ausardia faltak eta epelkeriak gaur egungo egoera lazgarrian kokatu gaituela eta badela garaia egoera hau iraultzeko eta euskalduntasunean bide zuzenetik eragiteko.

Hurrengo asteetan jarraituko dugu informatzen

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Araban
Bueno Monreal, 10 Behea
01001 Gasteiz
Telf.: 945 259 544
Faxa.: 945 258 039
Irakaskuntzaaraba@
labsindikatu.org

Bizkaian
Rekalde zumarkalea,62
48010 Bilbo
Telf.: 944 706 900
Faxa.: 944 706 909
Irakaskuntzabizkaia@
absindikatu.org

Gipuzkoan
San Bladi 1, behea
20013 Donostia
Telf.: 943 458 562
Faxa.: 943 456 645
Irakaskuntzagipuzkoa@
labsindikatu.org

Nafarroan
M.Zelaieta 75, 2.A
31014 Iruñea
Telf.: 948 382 474
Faxa.: 948 221 276
Irakaskuntzanafarroa@
labsindikatu.org

Iparraldean
13 Marengo Karrika
64100 Baiona
Telf.: 0559595020
Faxa.: 0559595021
baiona@
labsindikatu.org